

HEZKUNTZA. 'Ikasketa baimenak 2001-2002' programaren saioak egin ziren atzo, Gasteizko jardunaldian

Leonor Bilbao:
«Euskara gelako
esparru estutik atera
behar da, lotura
afektiboa indartzeko»

L.K.G. | GASTEIZ

«Euskara gelako esparru estuetatik atera eta kanpoko jardueretara eramateak ikaslearen eta hizkuntzaren arteko lotura afektiboa indartzeko modua» dakarrela uste du Leonor Bilbao.

Ibaizabal Institutuko Leonor Bilbao gelaz kanpoko jardueren gidaren berri eman zuen atzo eguerdian Gasteizen, *Ikasketa baimenak 2001-2002* programan aurkeztutako saioen barruan. Bilbaorekin batera, aurreko ikasturtean ikerlanak egiteko Eusko Jaurlaritzak libratutako beste 22 irakasle aritu ziren atzo, egun osoz egindako jardunaldian.

Bilbaoren irudiko, ikasleek «oso egitura zatitua» izaten dute buruan, eta beraz, matematikak edo euskara ikastea maila berean jartzen dute. «Ikasleak berehala barneratzen du ikasgai estankoen kontzeptua, eta hori apurtzeko era probetxugarria da euskara gelaz kanpoko jardueretara eramatea, hizkuntza tresna dela, eta ez helburua, sinetsarazteko», adierazi zion EGUNKARIARI, saioa eskaini aurretik.

**«Gelaz ez du laguntzen
harreman afektiboa lortzen»**

Bilbaoren esanetan, ezinbestekoa da, ikasleak euskara gizarte harremanetan erabiliko badu, harreman afektiboa lortzea. «Arazoa da gelaz ez duela horretarako laguntzen, duen eskeema autoritarioa dela eta», gaineratu zuen.

Alabaina, gelaz kanpoko jardueretan egitura beste era batekoa da, non ikasleak elementu aktiboa dela sentitzen duen. «Kanpoko jardueretan protagonistak direla sentitzen dute. Gelan, ostera, ez, pasiboak baitira, eta irakaslea aktiboa».

Ibaizabal Institutuko irakasleak bide luzea egin du irakasuntzan (32 urte), eta, urtebetean izan ezik, gainerako guztietan aritu da gelaz kanpoko jarduerak direla eta. Horri esker, Bilbao argi eta garbi dauka eskolatik at antolatzen diren ekintzetan ikasleak «plazerra» sentitzea lortu behar dela, euskararen kasuan, hizkuntza derri gorrez erabili beharra dutela interpreta ez dezaten. Dena den, horrela izan dadin baldintza batzuk badaudela dio, adibidez, «harreman goxoagoak izatea edo irakaslearen eta ikaslearen arteko hurbiltasuna».

JOSE RAMON ARRIZABALAGA IRAKASLE ERRETIRATUA, 35 URTE ONDOREN



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

«Irakasleok salatu beharko genituzke hezkuntzaren aurka gizartean ohiko diren ekintzak»

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Jose Ramon Arrizabalaga markinarrak 35 urte inguru igaro ditu hezkuntza sistemaren barruan. Irakasle eta zuzendari izana da, Durangoko (Bizkaia) Institutuan, batez ere. Erretiratu berria da, baina geletan makina bat urtetan bildutako eskarmentua nahiz garaien arteko aldaketak azaldu zituen atzo, Gasteizen, *Ikasketa baimenak 2001-2002* programan egindako ikerlanak aditzera emateko jardunaldiaren hasieran.

■ Zure hitzaldian esan duzu 35 urtean ia dena aldatu dela gure hezkuntzan sisteman. Zer ez da aldatu?

Zaila dut esaten... Nik uste dut gauza asko aldatu direla. Baina aldaketa nagusia da irakasuntza sozializatu egin dela, gizarte osora heldu dela, lehen guztiz elitista zelako, dirudunen aukera. Jakina, irakaskuntza sozializatzeak dakar gatazka gehiago izatea. Halaber, beste aldaketa bat da erakunde edo irakasleen jarrera erabateko inplikazioa dela. Nik konfiantza handia diot irakasleriari, egiten duen lanari behar duen balioa eman ez arren, guztiz ona baita.

■ Irakaslea kexu ohi da, inoiz baino presio gehiago jasotzen dituelako gizartetik. Ados zaude?

Lehen batera zihoazen familia eta sistema bera. Gaur egun gizartetik gauza asko datozkio irakasleari, eta, horren eraginez, zailtasunak jasaten ditu sistemak. Hezkuntza ez baita soilik irakasleen esku egoten; telebistak, familiak, inguruneak ere gogor eragiten dute eta.

■ Badirudi gurasoek eskola enpresatzat hartzen dutela, non haurrak 'gorde' eta hezten diren, gero emaitzak eskatu ahal izateko.

Nik ikasketak bukatu eta ez nuen lana bilatu beharrik izan, niregana etorri baitziren eskola batera joan nedin. Bistan da gauzak aldatu direla, ezta? Gaur egun gurasoek kezka handia dute seme-alabek lanpostua lortuko ote duten. Baina sistemaren helburua ez da lanpostu bat lortzea, kontua da sistemaren ondorioetako bat izatea lanpostua lortzea. Hala ere, gaur egun lehiakortasuna nagusitzen da, eta hori ere izugarritzko aldaketa da. Hala, emaitzak eskatzen dituzte gurasoek, baina irakasleak ezin du faktore hori bakarrik kontuan hartu, daukan lan na-

gusia ikaslearen ahalmen guztia garatzen laguntzea baita.

■ Gaur egun, garai batean ez bezala, eskola porrota izugarritzkoa dela esan ohi da. Zer uste duzu?

Akaso garai batean emaitza hobeak ateratzen genituen, baina irudipena dut gutxiago genekiela. Gaur egungo ikaslerik onenak askoz hobeak dira lehengo onenak baino.

■ Batzuk, ordea, kexu dira gaur egungo ikasleek gutxi dakitelako, eta argudio hori erreformak arrazoitzeko erabiltzen dute.

Garrantzitsuena da ikasleak egoerei zein arazoei aurre egiten jakitea, hots, prozeduren berri izatea, eta ez hainbeste makina bat eduki kaskoan nola edo hala sartzea; azken batean, edukiak eta ezagutzak ordenagailuaren disko gogorrean daude. Horrexegatik, hain zuzen, kezka sortzen dute Espainiako Gobernuak bultzatutako erreformek. Baina, legeak lege, konfiantza dut erreformek ez dutela gure hezkuntza sistema kaltetuko. Izan ere, hainbat lorpen erdietsi ditugu, eta orain lege horiekin arriskuan badaude ere, espero dut kalte handirik ez ekartzea, azkenean sistema

ESKOLA PORROTA

«Gaur egungo ikaslerik onenak lehengo onenak baino askoz hobeak dira»

ALDAKETA

«Irakaskuntza sozializatu egin da, eta horrek, jakina, gatazka gehiago dakar»

irakasleen eta ikasleen menpe dagoelako.

■ Gora egin al du irakaslea guztiaren erruduntzat hartzeko gizartearen joerak?

Bai. Baina irakasleok ezin dugu onartu gu hezkuntza sistemaren problema guztien erantzuletzat hartzea. Bitxia da: gaizki dagoenaren erantzuleak gara, eta ezin dugu batere protagonismo izan gaizki dagoen horrexen irtenbidean? Sendagileek, adibidez, ez lukete hori inolaz ere onartuko. Eta, ildo horretan, irakasleok ez genuke isilik geratu beharko, salatu egin beharko genituzke gizarteak ohiko dituen hezkuntzaren aurkako ekintza guztiak, guk ez baitugu zerotik hasita hezten, minus hamarretik baizik!

■ Bigarren Hezkuntzako gelak «gerran» direla ohartarazi dute batzuek. Hala al da?

Sistema ez dabilelako irudipena dago, neurri handi batean, Bigarren Hezkuntzako gatazka kontu horretatik. Nire ustez, ez lirateke nahastu behar ikasleen integrazio fisikoa eta afektiboa, baina mugatu egin da ikasleen integrazioa gela berean egotera, presentzia fisikora. Baina askoz gehiago da, eta osotasunez egin ezean, arazoak sortzen ditu.

■ Hainbat aldaketa izan dira, beraz. Zer esan euskarari dagokionez?

Hizkuntz aldaketa sakona ere gertatu da. Metodologia, adibidez, goitik behera aldatu da.

■ Erabileran, ordea, gabeziak daude.

Gogoan dut Durangon aspaldi epaile izan nintzela nesken arteko aretoko futbol partida batean; D eredukoak euskaraz ari ziren, A-koak erdaraz. Lau urte igaro ostean, finala egokitu zitzaidan talde berberekin... eta biak ere euskaraz. Lan handia egin da publikoan ikasleak euskalduntzen. Arazoa da hori ez dela igarri hainbeste hiriguneetan.